

**INFORMAZIO GARRANTZITSUA 2022/2023 BIRBAREMAZIO-PROZESUAN:**

Birbaremazio-prozesua 2021eko azaroaren 8an hasiko da. Prozesuaren hasiera aurreratu da, ikasturte hasierako esleipenen hasiera eta amaiera aurreratzea aurreikusten baita; horrek zuzeneko eragina du birbaremazio-prozesuetan, esleipen horien egutegira egokitu behar baitira, eta, beraz, aurreratu ere egin behar dira. Azaldutakoak honako hau dakar:

- Birbaremazio-prozesuak gutxi gorabehera urte bakoitzeko azaroan hasiko dira.
- Kontutan hartuko den data birbaremazio-prozesu bakoitza hasten den urteko abuztuaren 31 arte izango da (merezimenduak zenbatzeko, zerrenda berrietan sartzeko baldintzak betetzeko, eskaera berriak zerrenda orokorrean sartzeko).
- 2022/2023 ikasturterako birbaremazio-prozesuan, adierazitako egutegi berrira egokitu da. Hori dela eta, esperientziaren zenbaketa, merezimenduen baremoaren barruan, 2021eko martxoaren 7tik (aurreko birbaremazio-prozesuan (2021/2022) zenbatutako azken egunaren ondorengo) 2021eko abuztuaren 31ra artekoa izango da.
- Hurrengo birbaremazio-prozesuetan (berregokitzea egin ondoren), esperientziaren zenbaketa urtekoa izango da (360 egun), aurreko urteko irailaren 1etik birbaremazio-prozesua hasten den urteko abuztuaren 31ra.
- Birbaremazio-prozesu osoan zehar argitaratu beharreko informazioa Sailaren webgunean eta <https://hezigunea.euskadi.eus/eu> atarian argitaratuko da, orain arte informazioa argitaratu den ataria laster desagertuko baita [www.irakasle.eus](http://www.irakasle.eus) ataritik. Prozesuaren hasierarekin lotutako informazioa 2021eko azaroaren 5ean (ostirala) argitaratuko da.